



Edukiontzi egokituak ipintzeari buruzko mozioa

“Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruko konbentzioaren” arabera, irisgarritasuna eskubide bat da, eta eskubide horrek pertsona bati modu seguruan, erosoan eta autonomoan leku batera iristeko, bertatik ibiltzeko eta bertan egoteko benetako aukera ematen dio. Horretarako, ingurune fisikoko hesiak ezabatu egin behar dira. Hori dela-eta, gure Udalaren lehentasunen artean egon behar du irisgarritasun hori gure herritar guztientzako unibertsala izan dadin ahalbidetzea.

Badakigu arlo horretan lan asko dagoela egiteko, eta inbertsio batzuk beste batzuk baino errazago egin ahal izango direla. Baina arrazoi horrengatik uste dugu urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan partidak aurreikusi behar direla gurea pixkanaka-pixkanaka irisgarritasun unibertsala bermatuko duen udalerrri bat izatera heltzeko.

Irisgarritasunari lotutako oztopoez hitz egiten dugunean, beti etortzen zaizkigu burura aldapa handiko arrapalak edo eskailerak, baina, zoritxarrez, desgaitasunen bat duen pertsona baten egunerokotasunean askoz ere elementu gehiagok mugatzen dute bere bitzta normaltasun osoz aurrera eramatea. Oinezkoen pasabideak, bide-seinaleak, hiri-altzariak... herritar guztiek inolako mugarik gabe erabili ahal izateko egokitu behar diren elementuetako batzuk dira.

Udal bat baino gehiago ari dira beren udalerrietan hiri-hondakin solidoen bilketa errazteko edukiontzi egokituak ezartzen, ez bakarrik desgaitasunen bat duten pertsonen erabiltzeko, baita haurrek erabiltzeko ere.

Horren ondorioz, _____ Udaleko Talde Sozialistak mozio hau aurkezten du udalbatzan eztabaidatzeko eta onartzeko. Mozioak honako puntu hauek ditu:

1. _____ko Udalbatzak herrian edukiontzi egokituak jartzeko eskatzen dio udal gobernuari.
2. _____ko Udalbatzak, Gizarte Zerbitzuen Sailean dauden datuez baliatuz, udalerrian desgaitasuna duten pertsonak bizi diren lekuen azterketa egin dezan eskatzen dio udal gobernuari, lehentasunez, edukiontzi egokituak euren etxebizitzetatik gertuen dauden hondakinak biltzeko guneetan ipini daitezen.
3. _____ko Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio _____ko Mankomunitateari edukiontzi egokitu horien eskaera egiteko.
4. _____ko Udalbatzak Udal gobernuari eskatzen dio egokitutako edukiontzien bilketaren analisia _____ko Mankomunitateari eska diezaion, bilketa horren maiztasuna berrantolatzeke, edukiontzi egokituak edukiera txikiagoa baitute.